

Marimatrakak 4. atala:

PILAZOKERIAK

Txokolate usainak marimatrakak esnatu ditu. Munduan ez dago ezer bi neskato hauek txokolateak bezainbeste erakartzen dituenik. Hipnotizatuta bezala usain gozoari jarraitzeko gauza dira begiak itxita ere.



1- ZERGATIK ESNATU DIRA MARIMATRAKAK?

Txokolatearekin amets goxoak izan dituztelako.

Gero txokolatea erostera joango direlako.

Txokolatea usaindu dutelako.

ETA Gaur goizean horixe egin dute. Sudurra esnatu zaie lehenengo eta, ondoren, oinak. Bata bestearen atzetik, sukaldera abiatu dira Noa eta Lea.

—Egun on, maiteak! —esan die aitak.

—Mmmmmmmmm —erantzun dute biek, su gainean dagoen ontziari begira.



—Zer egun da gaur? —galdetu die.

—Mmmmmmmmm —egin dute berriro marimatrakek. Katiluak armairutik hartu eta mahaian eseri dira.

Noa bat-batean jabetu da. Bere aulkian dantzan hasi da.

—Nire urtebetetzeaaaaaaa! Horregatik egin duzu txokolateaaaaaaa.

2- ZERTARAKO EGIN DU AITAK TXOKOLATEA?

Lagun bati emateko.

Noaren urtebetetzea ospatzeko.

"Masterchef" programan aurkezteko.

Barre egin du aitak. Gero esku batekin ahoa itxi dio Noari.
 —Eta zenbat urte egin ditu Noak? —galdetu dio Leari.
 Lea hatzekin hasi da kontatzen:
 —Bat, bi, hiru..., bost, hamar, bederatzi, sei, zazpi... hogeita...
 —Zazpi! Oso ondo! —moztu dio aitak.



3- MARKATU EGIAZKO ESALDIAK:

Aitak barre egin du.

Aita, Noa eta Lea sukaldean daude.

Leak ez daki ondo zenbatzen.

Noak esaten die zazpi urte beteko dituela.

Marimatrakak txokolatea edango dute.

Aitak babarrunak prestatu ditu.

Eta Lea ere dantzan hasi da aulki gainean, harro.
 Oraindik ez daki ondo zenbatzen, baina bere eskuak bost
 hatz dituela badaki. Eta aukera duen bakoitzean bere
 jakinduria erakustea atsegin du.
 Orduan etxeko txirrinak jo du. Noa aulkitik jaiki eta
 korrika atea irekitzera joan da.
 —Ama izango da!



4- HUTSUNEAK BETE DAGOKION HITZAREKIN:

- Aulki gainean Lea hasi da.
- Leak badaki eskuak bost dituela.
- Txirrina entzuten denean dela pentsatzen du Noak.



Atea ireki duenean ama ez dago beste aldean. Pailazo bat da, bere oinetako handiekin eta puxika mordo batekin. Baina Noari ez zaio sorpresa gustatu... Bere urtebetetzea aitarekin eta Learekin ospatzea ondo dago baina ama falta da! Non dago ama? Lanean? Eta lanera joan bada, zergatik ez du joan baino lehen zoriondu?

**5- EZUSTEKO EDERRA HARTU DU NOAK.
AMA EZ DATOR, PAILAZO BAIZIK.
ZER DARAMA PAILAZO HONEK?**

Gozokiak

Sudur gorria

Puxikak

Opari bat

Peluka

Gozokiak

Aurpegia margotuta

Zapata handiak

Danbateko batez itxi du atea, pailazoa kanpoan utzirik. Gero bere logelara joan da. Ez du txokolaterik nahi, ez pailazorik, ez oparirik. Amarekin ez bada, ez du urtebetetze-ospakizunik nahi!



6- ZERGATIK HASERRETU DA NOA?

Pailazoak gustatzen ez zaizkiolako.

Bere eguna amarekin ere ospatu nahi duelako.

Pailazoak bonboiak ekarri ez dizkiolako.

7- IRAKURRI AMAIERA:



Orduan logelako atea ireki du norbaitek.
Ama da. Pailazo-sudurra, ileordea, eskularru zuriak eta zapata handiak kendu ditu.

—Ama! Zu zinen!

Elkarrekin joan dira sukaldera eta, orduan bai, Noari abestu eta belarritik tira egin diote.

Gailetak txokolatetan bustiz bapo egin arte jan dute.
Eta pailazokeriak egiten aritu dira guztiak, txokolate arrastoak eta irribarre handiak aurpegietan.



8- GUSTATU ZAIZU ATAL HAU?

9- IRAKURRI IDAZLEAK ETA MARRAZKILARIAK ESATEN DUTENA:

Ana Jaka naiz, marimatraken istorioen idazlea. Etxeko txikia naiz, umetan, ahizpak kontatzen zizkidan ipuinak, eta nebak txantxak egiten zizkidan. Ez dut gogoan, noski, nire lehenengo hitza, baina geroztik istorioak sortzen jarraitu dut.

Iosu Mitxelena Unsain naiz, marimatraken istorioen marrazkilaria. Ni ere etxeko txikia naiz. Anaia-arrebek, nagusiagoak izanik ere, okerrago marrazten zuten. Horrek superbotere bat ematen zidan. Monigoteak maitatzen hasi nintzen txiki-txikitatik.

